

ataria

2022-11-25 • 1.694. zenbakia
107.6 fm • Ataria.eus

Prostituzioa, bortxaren eta lan duinaren artean





AURKIBIDEA

Iritzia Ura Iturralde **3**

Elkarrizketa Yeregi aita-seme
errementariak **4-7**

Asteko Gaia Tiganus eta Iturrioz,
bi posizio prostituzioaz **10-17**

Hitzez Hitz

Joxe Manuel Odriozola **18-19**

Iritzia Joxe Agustin Arrieta **20**

Iritzia Maider Barandiaran **21**

Olerkia Juan Kruz Igerabide **22**

Elkarrizketa Andoni Agirrezabala
alegiarraren lehen eleberria **26-29**



Azaleko irudia
Itzea Urkizu Arsuaga

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana eskaratu

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.





URA ITURRALDE
ARGAZKILARIA

Zer ari da gertatzen Iranen?

Bi hilabete igaro dira jada Irandar Moralaren Poliziak Mahsa Amini, 22 urteko gazte kurdua erail zuenetik. Beloa «gaizki jantzita» eramateagatik atxilotu eta hiru egun beranduago hil zen ospitalean. Egun hartatik protesta mobilizazioak areagotu egin dira Islamiar Errepublika osoan. Iran Human Rights taldearen arabera, oraingoz, 326 pertsona hil ditu poliziak, 15.000 izan dira atxilotuak eta 5 gutxienez heriotza zigorrera kondenatuak.

Azkenaldian askok galdetzen didazue aldaketa esperantzarik ba ote dudan eta nik baietz erantzun nahiko nuke. Ez dut horren argi ikusten ordea, zalan-tza asko ditut. Egia da pertsona asko nazkatuta daudela, gehienbat gazteak, kalera irteten direnak euren ikarak etxean utzita, dituzten baliabide gutxiekin poliziari aurka egiteko asmoz. Sare sozialen bitartez iristen zaizkigun irudietan jendetza biltzen dela ziurtatu daiteke. Hala ere, kontutan hartu behar dugu guk ikusten ditugun mobilizazioak gobernuaren aurkakoak direla eta tamalez badirela agian beste hainbeste Islamiar Errepublikaren arauak babesten dituztenak.

Nik, bere garaian, sentitu ahal izan nuen Teherango kaleetan jendearen arteko gatazka edo desadostasun hori. Oraindik gogoratzen dut gizon heldu batek nola gelditu ninduen kalean, erdi garrasika, beloak ez

zidalako lepoa behar bezala estaltzen. Emakume batzuek chador-a zeramaten jantzita, beste batzuek zapia buruan ilea erdi agerian. Kontraste handiak hiri-

«Iran Human Rights taldearen arabera, oraingoz, 326 pertsona hil ditu poliziak, 15.000 izan dira atxilotuak eta 5 gutxienez heriotza zigorrera kondenatuak»

buruan bertan. Zer esanik ez Qom, irandar Vatikanoa bezala ezaguna den hiria bisitatu nuenean. Ni nintzen beltzez jantzita eta guztiz estalia ez zihoan emakume ia bakararra.

Erlijioa ardatz bezala dutenak versus pentsamolde aurrerakoiagoa dutenak. Honi gehitu beharko genizkioke herri kurduaren aldarrikapenak, balutxeenak, azeriarrenak eta arabiarrenak persiarren aurka. Ez da egoera erraza, inondik inora.

Beraz, berriro ere galdetuko bazenidate ea gobernu irandarra eroriko ote den, ez nuke jakingo zer erantzun... BAIETZ ESPERO DUDALA, emakumeen eta gutxiengo etnikoen hobe beharrez.

«Lehen guztia eskuz egiten zen, baina orain gauza asko prestatuta etortzen dira»

GREGORIO, IÑIGO ETA XABIER YEREGI
ERREMENTARIAK

Burdinarekin lanketa guztia eskuekin egitetik, lan egiteko modua aldatu eta garai berrietara egokitzen jakin dute Yeregi errementariak; lanbidea fisikoki «erraztu» egin dela diote, modu berriei esker

Irati Saizar Artola Berastegi

Familiatik etorritako lanbideari eutsi asmoz ari dira errementari lanetan, gaur egur, Iñigo eta Xabier Yeregi anaiak, Berastegin. Gregorio aitak erakutsi die burdina lantzen, baina genealogian atzera eginda dator-kie lanbidea yeregitarrei.

Nondik datorkizue errementari lanbidea?

Gregorio: Aita ferratzailea nuen, behiak eta behorrak ferratzen aritzen zen, eta horrez gain, balkoi batzuk egin, laiak zorroztu, areak zorroztu... baserriko erre-mintekin lan horiek egiten zituen. Gehienbat, hala ere, ferratzen aritzen zen nire anaia Patxirekin batera. Nik Tolosako tailer batean egiten nuen lan, beste anaia bat eta osabarekin; han goldeak eta baserriko erre-mintak egiten genituen, eta aita gaixotzean Pa-txirekin hasi nintzen lanean.

Bi anaiak aritu zineten gero?

Gregorio: Aita hiltzean elkarrekin jarraitu genuen. Urte askoan aritu ginen gure jaiotetxean lanean; ne-

guan areak zorrozten genituen, are berriak ere egiten genituen; goldea gutxi erabiltzen zen, beraz, laiak zo-rrozten genituen, soroan erabiltzen ziren erre-mintak konpontzen aritzen ginen. Anaiak erretiroa hartu be-har zuela esan zidanean, amaren jaiotetxean gaur egungo tailer hau muntatu nuen.

Familiatik datorkizuen zerbait da, beraz.

Gregorio: Yeregitarrok 1600dik hasita, errementari er-lojugileen kastatik gatoz. Garai haietan dorreetarako erlojuak egiten zituzten. Elizetako erloju asko Yeregi sinadurarekin ageri dira oraindik ere. 1640an Bidani-tik Leitzara joan omen zen Frantzisko Yeregi Zabale-ta, bere familiarekin. Arotza zen, eta elizako dorrera igota erlojua ikusi zuenean egurrezko erloju bat egin omen zuen bere tailerrean. Iruñera eraman, eta guz-tiei gustatu omen zitzaien, baina egurrezkoa izanik, ez zela hain erabilgarria eta errementari ofizioa ikas-tera bultzatu omen zuten. Emaztea bi haurrekin Lei-



Xabier eta Iñigo anaiak, burdina berotzen duten suaren aldamenean, Gregorio aita ondoan dutela. **I.S.A.**

tzan utzi eta Betelura joan omen zen ofizioa ikastera. Bi urte pasa zituen han, eta lehen erlojua Beteluko elizarako egin zuen. Hemen inguruko herri askotan daude oraindik Yeregi erlojuak.

Zuek erlojuekin ez zarete aritu ordea.

Gregorio: Ez gu errementariak izan gara. 15 urterekin joan nintzen Tolosako errementeriara lanera eta 11 urte pasa nituen han, Berastegira bueltatu nintzen arte. Bi seme ditut, eta ikasteko gogorik ez zutela eta, guk egiten genuena ikasi zuten eta beraiek jarraitzen dute orain.

Tolosatik anaiarengana Berastegira bueltatzean, zer lan egiten zenituzten?

Gregorio: Geroztik gehiago zegoen base-rietan eta ferratzearena gutxiago egiten zen ordura-ko. Gehienbat balkoiak egiten genituen, etxe berri asko ari ziren eraikitzen garai hartan, eta etxeetarako burdin hesiak, ateak, garajeetako ateak... egiten geni-

tuen. Lurra biratzeko makina ere geroztik eta gehiago zegoen etxeetan eta areak zorrozteko lana gutxitzen joan zitzaigun. Mutil kozkorak ginenean, eta hazi ondoren ere bai, gurdiek zituzten gurrpil mazizoak egiten genituen jaiotetxean, urtean bi aldiz edo. Herrirako eta herri inguruko baserrietarako egiten genituen. Burdinazko aroa egiten genuen lehenik eta pagozko tabloiak jartzen genizkien gero. Gure aitak ganbaran jasota izaten zituen tabloiak, hamar urtez lehortzen egon behar izaten zutelako. Aro berriak egiten genituen tailerrean, eta gurrpila prestatzeko, aroa sutan berotzen genuen, burdina berotzean hazi egiten da eta egurra sartzen genion, eta mutil kozkorrok segituan ura botatzen hasten ginen, hozteko, egurra erre gabe. Urtean bi saio egiten genituen gurrpil horiek egiten; aldiko hamar-hamabi gurrpil egingo genituen. Gero gomazko gurrpilak hasi zirenean, lan hura ere bukatu egin zitzaigun.

Lehen hemen iltze asko egiten zen. Orain burdindegira joan eta edozein tamainatako iltzeak daukazu, baina orduan ez zen halakorik. Guk San Lorentzo ermitarako egiten genituen asko. Ohitura zen lehen, ofrenda moduan, San Lorentzora iltzeak eramatearena, azaleko gorriune eta granoak sendatzeko laguntza eskatuz. Horretarako eskatzen zizkiguten asko. Eta kateak ere egiten genituen, bereziki menditik enborrak jaisteko, eta iltze handiak behar izaten ziren kateari eusteko. Udazken garaian gaztainak erretzeko danbolinak ere egiten genituen; urtean hamar bat edo egingo genituen.

Zuek, Iñigo eta Xabier, nolatan animatu zineten aitaren ogibidearekin jarraitzera?

Xabier: Errementari lanbidea gustatzen zitzaigun, lana bazegoen, segituan hasteko aukera ere bagenuen eta hala animatu ginen.

Gregorio: Etxean ikusten denarekin badakizu askotan zer gertatzen den.

Zenbat denbora daramazue anaiok lanean?

Xabier: 31 urte daramatzat nik honetan lanean.

Iñigo: Lau urteko diferentzia daukagu bi anaiok, baina ni ere inguru horretan hasi nintzen.

Nola aldatu da lanbidea bera?

«San Lorentzo ermitarako iltze asko egiten genituen; ohitura zegoen ofrenda moduan eramateko»

GREGORIO YEREGI

Gregorio: Lehen guztia eskuz egiten genuen, baina orain gauza asko prestatuta etortzen dira eta muntatu egiten ditugu bertan.

Xabier: Soldatu ere orain elektrikoki egiten da, baina lehen sutan berotu eta mailuka soldatzen zen guztia. Erraztu egin da lana, fisikoki behintzat.

Gregorio: Fisikoki ederki aldatu da. Mailua eta borra-ekin joaz burdin guztiak zuzendu, okertu, zapaldu egiten genituen lehen.

Egiten dituzuen piezen diseinuari dagokionez, patroi batzuk edo dituzue?

Gregorio: Guk diseinatzen genituen gehienbat. Etxe berria egiten ari zen jende asko etortzen zen tailerre-ra, balkoi bat behar zutela eskatzera. Beti galdetzen nien: «Zer balkoi mota nahi duzue?». Askok pentsatu ere egin gabe zetozen. Adibide bera jartzen nien beti: «Denda batera zoazenean jertse bat erostera, buruan daramazu zein estilotako, koloretako jertsea nahi duzun, beraz, zuk nahi duzun bezalakoa erosiko duzu, eta balkoiarekin ere berdina da». Proposamen batzuk erakusten nizkien, eta bakoitzari bere gustakoa egiten genion. Mundu bat da.

Hasi eta buka, balkoi osoa eskuz egiten duzue?

Gregorio: Azken urteotan, balaustreak eginda etor-

ATARIAN jarrita Gojerri
eta Urola Kostako
Hitza egunkarietan toan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€

Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€

Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.

tzen dira. Zein motatakoak dauden erakusten zaizkie bezeroei, eta behin aukeratuta, baranda egiten dugu. Lehen, den-dena egin behar izaten genuen eskuz.

Xabier: Zerotik hasita egin behar izaten genuen lehen, eta ordu pila bat eskatzen du horrek. Hori dena ezin dugu bideratu orain. Zerbait eginda badator, lana errazago ateratzen duzu; eta noski, bezeroak kapritxo eskatzen badigu, egin genezake guztia eskuz.

Gregorio: Kapritxo nahi izan, eta diru asko baldin badu. Izan ere, eskuz hasten bazara, ordu mordoa pasa ditzakezu.

Xabier: Lehen eskulanak ez zuen ezertxo ere balio.

Eskuz lan egiteko, zer behar izaten da errementeria batean?

Gregorio: Lan bakoitzaren arabera ezberdina izaten da. Sua beti behar da, eta askotan, moztu edo soldatu egin behar izaten dira piezak. Erremintak ere piezaren arabera aldatu egiten dira.

Iñigo: Ohikoenak tenazak, mailua eta borra izaten dira. Sua egiteko harrikatza erabiltzen dugu.

Zuen lanbidea zein norabidetan ikusten duzue?

Gregorio: Geroz eta errementari gutxiago daude gaur egun, nabarmen. Garai batean tailer koxkor batek ateratzen zituen baranda kopuruarekin alderatuta, gaur egun dauden makinekin pilaka ateratzen dituzte, ezin da konparatu.

Iñigo: Gaur egun gainera barandak lisoak egiten dira gehiago, forja gutxi sartzen da. Obra berrietan eta hala ari gara ikusten. Orain lau haga moztu eta irudirik gabe eskatzen du jendeak. Pintatzeko ere lisoak eskatzen dituzte, errazagoa izateko.

Xabier: Modak izaten dira, boladak.

Iñigo: Oraindik ataka eta etxe sarreretako ate handiekin izaten dugu lan pixka bat. Forjaketa eskatzen duten lanak dira, eta egun, motorrarekin jartzen dituzte gehienek. Konponketa lanak ere egiten ditugu, batzuetan desmuntatu eta tailerrera ekarrita egin be-



har izaten dugu, eta besteetan bertan konpontzen dugu.

Burdina forjatzea eskatzen duten lanak bakarrak izango dira.

Xabier: Bi pieza berdin-berdin ez dira inoiz ateratzen.

Etorkizuna beraz, nola irudikatzen duzue? Izango dira errementariak etorkizunean?

Xabier: Izan beharko dute, norbaitek egin beharko du.

Iñigo: Toledon badago eskola bat, garai batean egiten zen bezala erakusten dutena. Irurtzunen ere bazen eskola bat. Guk dena etxean ikasi dugu, tailerrean bertan.

Familiatik datorren ofizioa duzue. Jarraipenik izango al du zuen familian errementari ofizioak?

Xabier: Oraindik gazteak dira gure ondorengoak. Iku-si egin beharko dugu ea gustatzen zaien.

Iñigo: Nire seme zaharrena aritzen da noizean behin gurekin. Gustatzen zaiola ematen du, baina ikusi egin behar.

Xabier: Eskulana nagusi duen lanik ez du nahi jendeak. Tailer handietan eta fabriketan lan egin nahi dute, konpromiso handiegirik gabe.

Gregorio: Eta pasa behar diren orduak asko dira hemen. Goizean badakizu zein ordutan hasi zaren, baina askotan noiz bukatuko duzun ezin izaten duzu jakin. Eta fabriketan, txirrinak jotzen duenean alde egiten duzu, hortxe dago aldea.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.



AZAROAK 25: INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA



AIZTONDOKO MUGIMENDU FEMINISTAREN DEIALDIAK VILLABONAN:

**BELDURRA ETA
KONTROLAREN AURREAN**

justizia feminista!

18:00 - Erreboteko plazatik hasita

Karro-poteoa

19:00 - Zizurkildik Villabonara

Elkartaratze ibiltaria

19:30 - Berdura plazan


Azaroak 25 ekitaldia

20:30 - Gaztetxean

Pikoteo eta karaokea

(paréntesis)
PSICOLOGÍA

Agus Tena González
www.parentesispsicologia.com
info@parentesispsicologia.com



634 446 454

Zer



duzu ulertu nahi?

**Modu askotan esan
daiteke EZ, baina
modu bakarrean ulertu.**

SOILIK BAI DA BAIETZ.

azaroak **25** Emakumeen kontrako
Indarkeria Desagerrarazteko
Nazioarteko Eguna

900 840 111 24h
DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU



araba álava
foru aldundia diputación foral



ETORKIZUNA ORAIN
Euzko Jaurlaritzako Gobernua Vasco





%25eko beherapena
bateria eta
balazta-plaketan*

Prestatu zure Volkswagena egoera guztietarako
neguko Segurtasun Azterketarekin.

Orain Tolosaldean Autowag Tolosa

Usabal Industrialdea, z/g · **TOLOSA** · 943 67 35 81

* Beherapen honek balazta-plaka eta baterien ordezkotarako balio du bakarrik.
Eskaintza 2022ko abenduaren 31 arte dago indarrean Volkswageneko Zerbitzu Ofizialetan.

Volkswagen Service



Iragarri zurea gurean

publi@ataria.eus / 661 678 818

* Atarikideentzat eskaintza bereziak

* Itzulpena eta diseinua doan

m
Mondragon
Unibertsitatea
Goi Eskola
Politeknikoa



Goierri
Campusa

ORDIZIA

INGENIARITZA
MEKANIKOKO
GRADUA

Abenduak 3, 11:00

Eman izena

www.mondragon.edu/ate-irekiak



HAUTU ASKEA: MITOA ALA BERMEA

Prostituzioaren gaiak jarrera kontrajarriak piztu izan ditu beti, eta Espainiako Kongresua afera arautzeko lege bat onartzeaz dela, pil-pilean dago eztabaida, iritzi abolizionisten eta despenalisten artean. Tolosako Asanblada Feministak Indarkeria Matxistaren Kontrako Egunaren ataria baliatu du, gaia erdigunean jarritzeko.

Itzea Urkizu Arsuaga

Praktika historiko bat, jazarpen historiko bat eta eztabaida historiko bat; hori guztia biltzen du prostituzioaren aterkiak. Diru truke sexu harremanak izatea ez baita atzo goizeko kontua: lekukotasun historikoen arabera, k.a. XVIII. menderaino egin behar da atzera, gutxienez.

Nork ez du sekula entzun «munduko ofiziorik zaharrena» dela? Askoren ustez, esapide horrek ez du emakumeen gaineko bortxa eta jazarpena normalizatu eta ezkutatu besterik egiten; badira, ordea, jardun horretan hautu asketik eta berme batzuekin aritu daitekeela defendatzen duten ahotsak ere.

Feminismoaren laugarren olatua ere ez baita debaute horretatik libratu, eta prostituzioaren inguruko iri-

tzi-talkak jarraitzen du emakumeen gorputz eta eskubideekiko ikuspuntuen gurutzaketa bat izaten.

Mataza hori askatzen saiatu gabe, baina aferaren gaineko ezagutza eta irizpideak aberasteko asmoz, Tolosako Asanblada Feministak erdigunean jarri zuen prostituzioari buruzko eztabaida, Topic zentroko aretoan, joan den azaroaren 16an: abolizioaren alde aritu zen Amelia Tiganus (Galati, Errumania, 1984), eta despenalizazioa defendatu zuen Aurora Iturriozek (Ordizia, 1978).

«Martxoaren 8ko edo azaroaren 25eko mobilizazio eta hitzorduak antolatzeaz aparte, pentsatu genuen beste zerbait ere eskaini behar geniola feminismoari», hala azaldu du Pilar Garaialde antolatzaileetako

ADONIZIOA



*Amelia Tiganus,
activista, formadora y escritora feminista*



*Aurora Iturrioz,
militante feminista*

TOPIC - TOLOSA
Azaroak 16 de noviembre
19:00

ANTOLATZAILEA:



Tolosako Asanblada Feminista

Laguntzailea:



TOLOSA

Tolosako Udala: Berdintasun saila





«Pentsamendu kritikoa
sustatu nahi dugu, horri
dagokionez ere gero eta
garai eskasagoak
bizi baititugu»

PILAR GARAIALDE, TAF

batek. Horrela, iaz asanblada-kideen artean generoari buruz egindako lan-saio baten jarraipen irekia izan da prostituzioari buruzko hitzordua: «Pentsamendu kritikoa sustatu nahi dugu, horri

dagokionez ere gero eta garai eskasagoak bizi baititugu. Ikuspegi kritiko horri bide ematearekin batera, guk geuk ere jantzi nahi genuen gaian». Eta asmatu zuten aferak jendartean duen interes-mailarekin, leporaino bete baitzen Topic-eko aretoa.

Espainian, legea aurrera

Hego Euskal Herriko agenda politikoan badu gaurkotasanunik gaiak, Espainiako Kongresuak joan den ekainean onartu baitzuen PSOEren lege proposamena.

Tirabira asko sortu dituen gaia izan da, eta PPK barririk azaldu izan du legearen aldeko jarrera argia; horrek, dena den, ez dio PSOEri testua onesteko babes faltarik ekarri. Argi azaldu izan dute prostituzioa

desagerrarazteko asmoa, eta, lege proposamena ere ardatz horretan kokatu duten arren, proxeneten jardunaren aurka egin dute batez ere, abolizionismoan erabat posizionatu gabe.

Irailean gaia berriro izan zen hizpide Kongresuan, CUPEk jarritako osoko zuzenketagatik: sexu lana legeztatzeke eta jardun hori Langileen Estatutuaren Araubide Berezian txertatzeko proposamena aurkeztu zuten alternatiba moduan, baina zuzenketak ez zuen aurrera egin, eta PSOEren proposamena ari da dagokion bide parlamentarioa egiten.

Nola lege proposamenaren bozketan, hala CUPen osoko zuzenketaren bozketan, abstenitu egin ziren EAJ eta EH Bildu, eztabaidarako prest azaldu ziren arren. «Kriminalizazioaren aurka» kokatu zen EAJ, eta EH Bilduk, bide beretik, legeak prostituzioan ari diren andreak «babesgabeago eta seinalatuago» utziko lituzkeela iritzi zuen.



Korapiloren bat elkarrekin askatuko duten itxaropena

Prostituzioarekiko aktibismoan bi posizio desberdinetatik ari badira ere, Amelia Tiganusek eta Aurora Iturriozek izan zuten adostasunerako tartea, joan den asteeko solasaldian.

Gorputzetik eta ahalduztetik ari da bata; bestea, berriz, pragmatikotasunetik eta datuetatik. Amelia Tiganus eta Aurora Iturrioz nor bere posizioa azaltzera eta defendatzera bertaratu ziren, joan den asteen, Topic-en antolatutako saiora, eta ia 300 pertsona izan zituzten ikus-entzule. Eztabaida bat baino gehiago, hitzaldi bikoitz bat izan zen, eta publikoko galderak erantzuteko tartea ere izan zuten hizlariek.

Gaiaren bueltako ikuspegi eta eztabaida historiakoak sarri zaildu egiten du aparteko jarreraren artean hurbilketaren bat ikustea. Baina, desberdintasunak desberdintasun, joan den asteeko hitzorduak utzi zuen itxaropenerako zirrikitu bat, ideal feminista

askoren bueltan azaleratu baitziren bi posizioen arteko elkarguneak.

Batetik, biek ala biek interseksionalitatearen prismetatik begiratu zioten gaiari, eta agerian utzi nahi izan zuten sexu indarkeria eta, zehazki, prostituzioa jasaten duten emakumeei gurutzatzen zaizkiela beste hainbat menderakuntza ere, generoaz gain: jatorria, arraza eta klasea, besteak beste.

Halaber, Tiganusek nahiz Iturriozek prostituzioa egiturazko auzitzat, sistema oso baten piezatzat jo zuten: «patriarkatuak emakumeei emandako posizioa» ekarri zuen hizpidera Tiganusek eta, Iturriozek, berriz, «sexu-genero sistemari sexualitatea gehitu» nahi izan zion, fokua heteropatriarkatuan jarritz.

Azkenik, bi ahotsek egin zieten erreferentzia legezko neurriei eta prostituzioa juridikoki arautzeko beharrari.

«Gauza bat da eskailerak garbitzea, eta beste bat eskailera horietako bizilagunen genitalak miazkatzea»

Amelia Tiganusek bere biografia propiotik eraiki du prostituzioaren auziari heltzeko diskurtso teorikoa, eta argi dauka zer behar duen legediak: prostitutentzat babesa, eta putazaleentzat zigorra.

Prostituzioan aritu eta gorputza gudu-zelai izan ondoren, Amelia Tiganusek bide bat hartu zuen, duela urte batzuk, ahalduntzeko eta bizitakoa teoria feministatik berreraikitzeko. Besteak beste, *La revuelta de las putas (Puten matxinada)* saiakera da bere aktibismo hori guztia bildu duen argitalpena eta, liburua eskuan aitortu zuen, Topic-en, aktibismo hori bizitza arriskuan jartzen ari zaiola: «Ohean sartu eta une horretan neska bakar bat ere sexu indarkeriaren pean ez dagoela jakiten dudanean, orduan bukatuko da hau guztia».

Feminismoetatik auzia konpontzeko modu bakarra ulertzen du Tiganusek: «Fede onez arituta». Eta praktikaren jatorria jo nahi izan zuen, 7.000 urte atzera eginda: «Prostituzioa instituzio patriarkala da, giza-kiak nomada izateari utzi, jabetza pribatua sortu eta emakumeak gizonen jabetza izatera pasatu ziren garaitik datorren zerbait».

Egitura horrek, ezkontzaren instituzioa baliatuta, emakumeak bitan banatzen dituela azaldu zuen: «Emakume pribatuak eta emakume publikoak; emazteak eta putak; gizon bakoitzarentzat emakume bat, ala emakume gutxi batzuk gizon guztientzat». Sailkatze horretatik sortutako dikotomiak, gainera,

bizi-bizirik ikusten ditu oraindik ere: «Emakume onak eta txarrak, putak eta santuak daude, eta horrek betikotu egiten du prostituzioan aritzen diren emakumeen bazterkeria eta estigma».

Betikotze hori, esaterako, emakumeen arteko «dena gaizki ateratzen bazait, puta sartu eta kito» broma normalizatuan ikusten du, haserretik: «Keinu horrek erakusten du zenbateraino daukagun barneratuta pentsamolde misoginoa, eta nola esleitzen diegun prostituta izaera emakume jakin batzuei, besteiei».

Arazo kolektibo bat

Zentzu horretan, afera hau besteen kontutzat hartzea ere gaitzetsi zuen Tiganusek, gaiari errotik modu kolektiboan heltzea galdeginez: «Askotan entzun izan dut, prostituzioaren auzian prostitutek erabaki behar dutela. Zergatik? Bestelako sexu indarke-

ria kasuetan salaketak modu kolektiboan egiten ditugu, eta hemen ere hori behar da».

Frantziako Iraultzara bitarte, emakume bat bortxatzea gizonen jabetza pribatuaren aurkako delitua zen; orduetik aurrera, ez. Baina, nola onartzen dute emakumeek sexu eraso bat? «Erasoa gertatu aurretik, probokazioaren bitartez, Lilith, Eva eta emakume

«Porno prostituzioaren marketina da, multinazional kriminal bat (...); haurrek uste dute sexu indarkeria eta sexualitatea gauza bera direla»

AMELIA TIGANUS

gaizto guztien bideetik. Erasoa gertatzen den bitartean, etsita: borrokarik egin ezin duzunean, egoera horretara makurtzen zara, bizitzeko. Eta, erasoa gertatu ondoren, eraso hori ez salatuta. Askotan hurbileko ingurunean gertatzen baitira eraso horiek, eta horrek eragindako beldurra eta zalantzak hain dira larriak, ezen erabatekoa baita deskonexio emozionala».

Horregatik uste du ez dela diskriminazio objektiborik, subjektibitateak beti zeharkatuko duela diskriminazio hori. Izan ere, zazpi urterekin bere osabaren sexu abusua eta hamahirurekin aldibereko bost bortxaketa jasan, eta 40 prostituta-etxetan aritu eta gero, Tiganusek argi dauka bere inguruak ekoitzi zuela puta gisa, eta prostituta ia denak modu berean ekoizten dituela gizarteak, pertsona gisa suntsituz: «Ulertu nuen nire sexualitatea zela bizitzen jarraitu ahal izateko truke-txanpona, eta hori zela nire aukera bakarra».

Pornografiatik jaten du

Azpiratze-sistema bat baino gehiago pilatuta dituzten gorputzak izan ohi dira prostitutenak, baina, Tiganusen iritziz, bada egitura konplexu hori guztia belaunaldiz belaunaldi etengabe erreproduzitzeaz arduratzen den beso bat: pornografia. «Porno prostituzioaren marketina da, multinazional kriminal bat, maskulinitate eredu jakin bat eta horren baitako sexualitatea diseinatzeko dituenak».

Haur eta gaztetxoei eskaintzen dizkien formakuntza-saioetan ikusitakoak pizten dizkio alarma guztiak: «Mutikoak zortzi urterekin hasten dira pornoa kontsumitzen, eta hamar gizonezkoetik lau onartzen dute putazaleak direla. Beren azal eta gorputzetatik deskonektatu eta burmuina kolonizatzen diete; sexu indarkeria eta sexualitatea gauza bera dela uste dute». Eta horrek neska gazteengan duen eraginak ere kezkatzen du: «Emakume gazte askoren ametsa *sugar daddy* bat izatea da gaur egun; haurrak bestelako bide batean hezi behar ditugu».

Deslegitimazioa aukera bakar

Amelia Tiganusek lege abolizionista baten beharra azpimarratuz itxi zuen saioa: «Prostituten eskubide-



ak bermatu eta babestuko dituen lege bat behar da, haiei bestelako lan bat, sare bat, babes psikologikoa eskainiko diena. Eta, aldi berean, putazaleak zigortuko dituenak; gaizki dagoena gaizki dagoela esan behar baita, legez arautu. Eta gaizki dago emakume bati baginatik, uzkitik edo ahotik zakila sartzea, berak nahi izan gabe». Deslegitimaziotik bakarrik uler-tzen du prostituzioa, agenda feministan.

Prostituzioaren ikuspegi despenalistari erreferentzia eginez, berriz, sexualitatea fribolitate moduan tratatzea kritikatu zuen: «Ez ditut garbitzaileak gutxietsi nahi, inondik inora; baina, gauza bat da eskailera garbitzea, eta beste bat eskailera horietako bizilagunen genitalak miazkatzea. Produktua zerbitzatzea edo produktua bera zeu izatea, hor dago aldea. Prostituzioari ezin zaio ahalduentze deitu, askatasun sexuala mugatzen duen neurrian».

«Posible al da prostituzioa baleko tresna bat izatea, egoera jakin batzuetan dauden emakumeentzat? Bai»

Aurora Iturriozek urteak daramatza hainbat gunetan militatzen, eta gune horiek guztiek eskaini dioten ikuspegitik eraiki du prostituzioarekiko posizioa ere: egoera jakin batzuetan hautu hori egin duten emakumeek legeak behar dituztela dio.

Garaipen elkartetik, praktika feministatik eta lesbianismotik eraiki du bere posizio politikoa, eta posizio horretatik hitz egin zuen Topic-eko saioan. Aurora Iturriozek aktibismoarekin uztartzen du zerbitzu sozialetako lana, eta dio bertan ez direla pertsonak existitzen: pertsonak testuinguru batean kokatzen direla, eta testuinguru horrek botere-harremanak sortzen dituela. Bide horretan, «ezin da hitz egin prostituzioaz testuinguruz kanpo».

1970eko hamarkadan teorizatutako sexu-genero sistemari, sexua kultur kategoria dela baieztatzen duenari, sexualitatea gehitzeko beharra nabarmendu zuen Iturriozek: «Finean, hortik sortzen da heterosexualitatea, eta horrek ekarri du emakume eta gizonentzako eduki desberdinak sortzea».

Zerbait bitan zatitzen bada, bat boterearen jabe egiten dela eta besteak botere hori jasan behar duela uste baitu Iturriozek: «Helburu argi hori du zerbait bitan zatitzeak, eta zatiketa horrek ekarri du emakumeek gizonei, etengabe, behin eta berriro, pribilegio ekonomikoak, sinbolikoak, kulturalak, politikoak nahiz sexualak transferitzea».

Adibide bat eskaini zuen aipaturiko pribilegioen transferentzia hori argitzeko: «2018ko da-

tuen arabera, emakume pobreenek 890 euroko soldata izan zuten urtean; gizonezko pobreenek, berriz, 10.676 eurokoa. Datu horrek hezuramitzen du emakumeek jasan behar izaten duten botere-sistema guztia». Eta sistema horrek, ondorioz, klasea markatzen eta zehazten duela baieztatu zuen, baina ez hori bakarrik: «Generoaz janzten eta moldatzen dira gorputzak, lanbideak, koloreak... dena».

Familia ere indarkeriaren instituzio

Egitura horren barruan kokatu zuen sexu biolentzia, eta «patriarkatuaren polizia» deitu zion: «Nor bere tokian egotea bermatzen baitu biolentzia horrek». Modu horretan, fokua jarri zion familiari, eta sexu indarkeria ia beti inguru horretan gertatzen dela azpimarratu: «Emakumeen %71k bikotearen eta bikote ohiaren aldetik jasaten dute biolentzia; indarkeria hori gauzatzen duena bikotez kanpokoa denetan ere, kasuen %82tan oso pertsona ezagunak izaten dira.

Eta, zer esanik ez haurren kasuan: 5 haurretik 1ek sexu indarkeria jasaten du, eta ia kasu guztietan familiako edo gertuko pertsonen eskutik. Izugarrikeria bat da».

Datu bidezko argazki hori baliatuta, Aurora

«Praktika feministak ezkontza eta bikote heterosexualak eraldatu dituzten modu berean heldu behar zaio prostituzioari; emakumeen bizitzak hobetzeko»

AURORA ITURRIOZ

Iturriozek behin baino gehiagotan jarri zuen zalan-tzan familiaren instituzioa bera, antolamendu horiek baitira, bere ustez, herritarrei biolentziarekin sozializatzen irakasten dietenak: «Emakumeok beldurrez eta biolentzia hori jasan behar izatea aukera bat dela jakinda sozializatzen gara; gizonezkoak, berriz, indarkeria hori gauzatzeko boterea dutela jakinda».

Sistema heteropatriarkala arazoaren muinean dagoela uste du Iturriozek, eta hortik dator familia eta bikote heterosexuala abolitzearen aukera mahai gainean jarri izana: «Heterosexualok fikzio kultural eta soziala zarete, eta heterosexual izate horrek markatzen dizue nola komunikatzen zareten, nola disolbatzen zareten maitasunean, nola zaintzen duzuen ingurua musu-truk...».

Jatorri berera jo zuen heteropatriarkatuak emakume zein gizonen bizkar gainean jartzen dituen estigmak hizpidera ekartzeko ere: «Gizonezkoen sozializazio-moduak arautzeko marikoia-aren estigma sortzen den modu berean, emakumezkoak putaren estigma hartzen dugu».

Bizitzeko tresna batzuentzat

«Posible al da prostituzioa baleko tresna bat izatea, egoera jakin batzuetan dauden emakumeentzat? Bai. Batzuentzat bizirauteko modu bat da». Bide horretan, gizarteak sarri prostituzioan ari diren emakumeak infantilizatzeko joera duela iritzi du Iturriozek eta, hori egin beharrean, ondo bizitzeko aukerak eman behar zaizkiela: aukera-baldintza zabalagoak eskaintzen dizkien legeak behar dituztela.

Eztabaida historiko hau nolabait argitzera joz, begirada intersektionalaren ezinbestekotasuna aldarrikatu zuen Aurora Iturriozek: «Prostituzioarekin ezin da ezer egin eta lortu, baldin eta atzeritar legea ukitzen ez bada. Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak are gehiago mugatuko ditugu».

Eta muga horietan harrapatuta ikusten ditu gaur egun prostituzioaren kontra Espainian indarrean dauden ordenantzak eta neurriak ere: «Ez dago eztabaida kolektiborik, jazarpena dago, erru osoa emakumei egotzen zaie...». Herrialde nordikoetan prostituzioaren jarduna debekatu eta gero gertatu denarekin



alderatu zuen egoera hori: «Azpisare bat sortu da eta langileak egoera are zaurgarriagoan daude».

Maila sinbolikoa vs. praktikoa

Abolizionismoaren defentsan ari direnei elkargunee-tara jotzeko eskua ere luzatu zien Aurora Iturriozek: «Lehenetsi ditzagun zenbait neurri, emakume horiek ez birbiktimizatzeko».

Praktika feministak ezkontza eta bikote heterosexualak eraldatu dituen modu berean heldu behar zaio prostituzioari, bere arabera. «Maila sinbolikoan ados nago ahots abolizionistek diotenarekin, baina maila praktikora ekarri behar da eztabaida, eta markoak sortu emakume horien ikusgarritasuna handitzeko eta beren bizitzan hobetze material bat lortzeko. Ezin ditugu lehen ere gaizki zeuden emakumeak okerrago utziko dituzten baldintzak sortu».



**JOXE MANUEL
ODRIOZOLA**
GALTZAUNDIKO
KIDEA

Ezerezaren bi ertzak


Ateo edo fedegabeari gauza bitxi bat gertatzen zaio heriotza ostearekin. Fededunak ez bezala, heriotza osteko bizitzan sinesten ez duenaren bidaiak ezereza du destinoztat. Betirako ezereza. Destino gogorra, inondik ere. Alabaina, ezerezaren kontua ez da heriotzaren osteko kontua bakarrik; jaio aurretik ere, zer ginen?, ezereza ez baldin baginen? Kontua da fedegabe batzuei zer pentsatua ematen digula heriotzaren ondorengo ezerezak, baina ez digula antzeko sentimendurik sortarazten jaio aurrekoak. Ez digu axola ezerezetik etortzeak: baina, dirudienez, axola digu ezerezera joateak. Edonola ere, heriotzaren osteko destinoaz askotariko sentimenduak egongo dira fedegabeon artean; fededun izateko bezalaxe, fedegabe izateko ere modu asko baitaude.

Esan dezagun, hortaz, ezerezaren inguruko sentimenduak bi ertz dituela, munduratu aurrekoa eta munduratu ondorengoa, eta horietako batek bakarrik interpelatzeko gaituela gutako batzuk.

Norberto Bobbio filosofoak zera dio gai honi buruz: «Ni nintzen ezerez hark ez zekien ezer nire jaio-tzaz, nire munduratzaz, eta hil ostean bihurtuko nintzenaz; izango naizen ezerezak ez du deusik jakingo izan naizenaz, nire inguruan egon zirenen bizitzaz eta heriotzaz, zeinen presentziak nire egunak elikatu zituen». Hitz horiei ez darie inolako hasperenik. «Zuk badakizu ezerezaren mamuak ez nauela sekula bakean uzten», dio Unamunok. Ezereza larrimin. Zizero-

nek ere badu iruzkinen bat: «Zoritxarrik latzena, hain zuzen, existitu ondoren ez existitzean datza». Horra ezerezetik ezerezerako bidaiaren sortzen zaizkigun sentimenduak. Inoiz bareak, inoiz asaldagarriak.

Esan izan da, ez dakit mundualdi ernegatua izan dutenen kontua den soilik, baina, tira, heriotzaren *zigorak* baduela zentzu edo esangura demokratikoren bat. Horrek berdintzen gaituela denok, goikoak eta behekoak, zorionekoak eta txarrekoak, eta abar. Nik ez nuke esango heriotza oso demokratikoa denik, ez behintzat hil aurretik; besterik da agian hilon-dokoa. Izan ere, heriotzaren ostean ezerezera egin behar dugun bidaiaren ez dago maila sozial eta hierarkiarik bidaiatzeko moduari dagokionez, hor ez dago



aberatsik eta txirorik. Botere-tsuetan boteretsuenak, errege-erreginak, eta handizki guztiak heriotzak berdintzen ditu ezer ez dutenekin. Baita oraindik orain hil den Erresuma Batuko erregina ere, mundu osoa bere hileta luzeak bezain arranditsuak gogoz edo gogoz kontra ikusi behar izan dituen, hain zuzen. Hilondoko bidaiak denok berdintzen gaitu, denok baldintza berdinetan goazelako eta denok destino bera partekatzen dugulako.

Ezerezaren inguruko sentimenduak bi ertz ditu, munduratu aurrekoa eta munduratu ondorengoa, eta horietako batek bakarrik interpelatzen gaitu gutako batzuk

Ezerezetik ezerezera doan betierako bidaian parentesi bat omen da bizitza. Horrek ez du esan nahi, hala ere, bizitzak zentzurik ez duenik, balio moralez ziprztindua ez dagoenik. Hain zuzen ere, bizitzaren zentzuan eta balio moralean dago gako nagusietako bat, ez fededun edo fedegabe izatean. Izan zaitezke pertsona eredu-garri bat fededun izanda, fedegabe izanda bezalaxe. Eta alderantziz, gauza bera: izan gaitzke torturaztzaile, fededun nahiz fedegabe izan.



Sexu aniztasuna



**JOXE AGUSTIN
ARRIETA
EGIGUREN
ERRETIRODUNA**

Errealitate berria da, beno, agian ez hain berria, baina haurtzaroan eta gaztaroaren hasieran ez genituen ezagutzen LGBTI pertsonak. Egia da marikak, arranditsuak, trabestiak —barka deiturak— aipatzen zirela. Nire ustez, gaur egun, zorionez, bizikidetza zibilaren lege bat dugu bikote homosexualak, lesbia-nak eta abar normalizatzeko. Bidezkoa da gay, bisexual, lesbiana eta transexualak pertsonatzat hartzea eta normaltzat eta naturaltzat hartzea. Ezin gara intrantsigenteak izan. Elkarriketa, tolerantzia, entzutea, harrera eta arnasa behar ditugu. Irekiera politika sozial gehiago eta kondena sektario gutxiago.

Eliza katolikoan ikusten dudak itxitasunak kezkatzen nau, nahiz eta zenbait apezpiku austriar, belgikar eta Frantzisko aita santua bera ere errealtate honi guztiari zubiak eraikitzen saiatzen ari den, matxismoak eta estutasun etiko-moralak kondenatuz. Topaketa-foro eta agora gehiago behar ditugu, eta gizatasun handiagoa eta kulturen arteko eta erlijioen arteko entzumena azpimarratzea. Funtsezkoa da kolektibo susmagarri batetik harrotasun kolektibo aktibo batera igarotzea.

Ostadarra bandera sexu aniztasunaren harrotasun ikurra da. Ez naiz ari ostadarren fenomeno optikoaz, meteorologikoaz eta naturalaz, argiak ur-tantak zeharkatzen dituenean gertatzen denaz, baizik eta dibertsitate eta aniztasun sexualaren beharraz, bizi-dohain eta -talante gisa. Legezko berdintasuna berdintasun sozial bihurtzea.

Garrantzitsua iruditzen zait ikusgai egitea eta armairutik normaltasun osoz ateratzea. Ez bilatu errudunik. Pertsona horiek jasaten dituzten eraso sistematikoek eta babesgabetasunak kezkatzen naute. Ez homofobiarik, ez transfobiarik. Bai, ordea, edozein pertsonaren genero-aniztasunari eta duintasunarekiko errespetuari, edozein sexukoa dela ere.

Duela gutxi arte arrazakeria, antisemitismoa eta xenofobia egoera tragikoak bizi izan ditugu. Homosexualitatearekin lotutako guztia txarra zela, desbideratua, sendatu beharreko gaixotasuna. Orain, Hezkuntzari buruzko lege berri bat planteatzen ari garenez, une egokia da aniztasunaren, errespetuaren eta gure ikastetxeak guztiekiko aniztasun- eta errespetu-leku bihurtzeko eta aniztasun afektibo-sexuala aitortzeko.

Garrantzitsua da dibertsitatea eta aniztasuna aberastasuna, positiboa eta dohain eta oparizat hartzen den mundu bat eraikitzen jarraitzea. Gizarte heteropatriarkalaren ereduak ez dezala berriro indarra hartu, atzerapausoa izango bailitza-teke.

«Funtsezkoa da kolektibo susmagarri batetik harrotasun kolektibo aktibo batera igarotzea»

Ekinaukerak



**MAIDER
BARANDIARAN**
NITIK GURA

Berariaz euskaraz ekiteko garaia zehaztu dugun aldi honetan, edonon sortzen zaizkigu aukerak. Zer esanik ez, giro eta egoera soziolinguistiko honetan: Herri-zaingo sailak udaltzainen lan poltsarako euskararen eskakizuna kendu berri duenean, irakasleen euskara maila kezka-gai denean, edota kalean ostalaritza abiadura handiko erdalduntze fasean dagoenean...

Zer erremedio!? Berriz ere gure bizkar beharko du ahaleginak; bai, behintzat, tranpatan eta gu noiz nekatuko zelatan ditugun arduradun nekaezinak hartu nahi ez dituzten neurriak hartzera eragin artean.

«Berriz ere gure bizkar beharko du ahaleginak; bai, behintzat, tranpatan eta gu noiz nekatuko zelatan ditugun arduradun nekaezinak hartu nahi ez dituzten neurriak hartzera eragin artean»

Oraingoan, urrats praktikoak emateko ariketa bat proposatu zaigu; ahal dugun heinean, eginean ekitea, edota ekiteko aukerak sortzea. Non-nahi eta zenbat nahi den eragin izaten da gakoa; beti ere indar eta aldartearen arabera, ariketa erraldoiari gure aletxoak jarritz.

Ondo hasi dugu. Txapa ez daukat eskuratzerik arratsaldeko 17:00ak arte. Betiko etiketarekin ekingo diogu, hortaz: goizean goizetik euskaraz, ez da hartzari aurre egiteko ariketa egokiagorik! Bagoaz.

Ekin diogu 1: (2 #ekinaukera).

Adunan. Saltoki handi batera enkargutan. Kaxan, 30 urtez azpiko langilearekin sokatira: nire aldera soka ekinaren ekinez. Berak gazteleraz. Azken agurrari euskaraz erantzun dio! (Esan gabe doa lehenengo agurra zein hizkuntzetan egin duen).

(2. #ekinaukera)

Adunan. Saltoki bereko aparkalekuan, norbait deika atzetik. Biratu eta Lizartzara Portugaldik etorri zaharra ez den euskaltegiko ikasle ohia. Agurtu. Bi muxu. (Nik) erritmo mantsoan euskaraz ekinez, amaierara arte eutsi diot(gu) elkarrizketa elebidunari.

Ekin diogu 2: (#ekinaukera bakarra).

Kuadrillako afarian gaztelerara jauzika, ez behin, ez birritan, dabilenari esatea euskara gure mahaian behar dugula sorioneku izateko; ez museoetan.


Ekin diogu 3: (#ekinaukera bakarra).

Asteasun, gaur, lasai. Okindegian ez zegoen oraindik gazteleraz bakarrik ikasi duen Portugaldik etorri berria den langilea. Hau ere Portugaldik, hara. Zaharrrak berri.

Ekin diogu 4: (#ekinaukera bat gasolindegian).

(Artikuluaren entregatu behar dudana egunean) ez dut jantzi atzo jantzi nuen berokia. Txapa etxean utzita (ahaztuta?) atera naiz kalera astelehenarekin. Horregatik rola aldatu gabe, eutsi egin diot gureari, inoizko ahomantsoen bada ere, deskontu txartela egiteko eskaintza gaztelaniaz egin didan langilearen aurrean. Ulertzen ez zidanez, Nortasun Agiria eskatuz amaitu du inprimakia; betetzeko behar zituen datuak irakurritz eskuratuta.

Eta horrelaxe jarraituko dugu. Orain, egunez egun, gutxienez beste 15 #ekinaukera probestuko ditugu. Hemengo hizkuntza entzuteko prest dauden eta ez dauden belarriei oraindik ere gatazka baten erdian gaudela aho bizi erakutsiz. Eta aurrera begira, hamabostaldiz hamabostaldi, segida emanez ere bai beste bi mila urtez iraun nahi badugu.



**JUAN KRUZ
IGERABIDE**
IDAZLEA

Esperoan

Antzinako tren-geltokia
betiko geldieran.
Trenbidearen arrasto etenak
urruntasuna seinalatzen du
lozorroan dagoen aitona zahar baten
makila etzanak bezala.
Ziurgabetasunak,
bridei tiraka,
harrizko denbora bat
zamalkatzen du
antzinako tren-geltokian
betiko geldieran.

AGENDA

OSTIRALA

AZAROAK 25

ABALTZISKETA

ELKARRETARATZEA

16:15. Abaltzisketako Txalburu eskolak deituta, elkarretaratzea egingo dute indarkeria matxista salatzen, eskola ondoko plazan.

ALBIZTUR

A25

Albizturko eskolan, tratatu onen inguruan *role playing*-a.

16:00. Elkarretaratzea eskolan.

ALEGIA

SANTA ZEILIA

16:30. Loatzoko musika eskolako ikasleen solasaldi musikatu, herria girotuz, plazan.

ELKARRETARATZEA

19:00-21:00. Sutarri dantza taldeak talo postua jarriko du.

19:00. Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren kontzentrazioa Eztan-dak deituta, plazan.

Ondoren. Bertsopoteoa, Maddi Aiestaran eta Maddi Ane Txopere-rena bertsolariekin eta trikitiaz.

ALTZO

SANTA ZEILIA

18:30. Loatzoko ikasleen emanaldia, Batzarremuñon.

A25

19:00. Elkarretaratzea, plazan.

AMASA-VILLABONA / ZIZURKIL

A25

Aiztondoko Neska Gazteak, Aiztondoko Mugimendu Feministak eta Zizurkilgo Udalak antolatuta.

18:00. Karro-poteoa, Villabonako plazatik hasita.

18:30. Irridaka entsegua, Joxe Arregi plazan.

18:45. Irridaka egingo dute indar-



keria jasaten duten emakumeen omenez.

19:00. Elkarretaratze ibiltaria (Zizurkil-Villabona).

19:30. Villabonako Berdura plazan A25 ekitaldia.

20:30. Pikoteo-karaoke-bertsoak, Villabonako Gaztetxean.

AMEZKETA

UDAZKEN KULTURALA

18:00. Bertako hazi bariatateak eta hauen ugalketa hitzaldia, Pello Zabala gunean. Ondare biokulturala, komunitatea eta agroekologia.

20:00. Talo jatea, DBH 4. maila-koen eskutik, Larrunarri frontoian.

ANOETA

A25

19:00. Elkarretaratzea.

Ondoren. Bertso afari feminista Maider Arregi eta Nerea Elustondorekinekin, Kuku elkartearen.

BERROBI

A25

18:45. Kontzentrazioa udaletxe aurrean, 5 minutuko isilunea.

19:00. A ze pare! antzezlanak Etxolan.

Ondoren. Ostatuan, pintxo-potea.

BIDANIA-GOITZ

A25

Txinkorta eskolan eskuen arrastoe-ekin ekintza positibo eta negati-boak idatzi, abestiak landu, argazkiak atera eskuei, sentimen-duak adieraziz eguneko zentroan eta familiakoei.

19:00. Elkarretaratzea emaku-meen kontrako indarkeria sala-tzeko, frontoi aurrean.

IKAZTEGIETA

A25

19:00. Lumineszenteak. Emaku-meen aurkako indarkeria ikusezi-nak eta erresilientzia historia zenbait. Igone Mariezkurrena ka-zetariarekin eta Irantzu Pastor ar-gazkilariarekin, udaletxeko erabilera anitzeko gelan.

Ondoren. Elkarretaratzea.

IRURA

A25

18:00. Elkarretaratzea, San Migel plazan.

18:15. Bertso saioa, Kulturunean. Amaia Agirre gai jartzailearekin eta Alaia Martin eta Saioa Alkaiza bertsolariekin.

LARRAUL

AGENDA

KULTURALDIA

17:00. Gazteek antolatutako haur jolasak.

19:30. 2023ko egutegirako argazkien aukeraketa, liburutegian.

20:00. Kantu afaria, herriko ostatuan (haurrak).

20:30. Kantu afaria, herri ostatuan (helduak).

LIZARTZA

KULTURALDIA

16:30, 18:00 eta 19:30. *Gozamez... escape room*-a. Izen-ematea udaletxean. 13 urtetik gorakoentzat. Udal aretoan.

OREXA

OSTIRAL KULTURALAK

22:00. Irtera taldearen kontzertua *Ostiral Kulturalak* ekimenaren barruan, ostatuko ganbaran.

TOLOSA

TITIRIJAI

10:00 eta 12:30. *Bianco*. Labu teatro (Herrialde katalanak). Familia guztiari zuzendua. Hitzik gabea. 50 minutu.

17:00. *Txotxongilo antzerkiaren inguruko kanpoko indarkeria* jardunaldiak. Adolfo Ayuso eta David Zuazolarekin eta Toni Rumbau moderatzaile lanetan.

20:30. *La muerte de Don Cristóbal*. Pelele (Frantzia). 16 urtetik aurrera. Gaztelaniaz. 50 minutu. Topic-en.

HITZALDIA

17:00. *Europa sutan? Egoera sozio-ekonomikoaren erronkak*. Inflazioa, lansariak, pentsioak eta gordailuak. Adrian Zelaiak (Ekai Center) eskainita. Tolosako kultur etxean.

A25

18:30. Itaiak deitutako manifestazioa, Trianguloa plazan.

19:00. Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurkako manifestazioa egingo dute, Trianguloa

plazatik abiatuta. Numen dantza eskolak emango dio hasiera.

AMALUR JARDUNALDIK

19:00. Hitzaldia. Gaztelaniaz. Carlos Hita. *Viajar de oídos. Sonidos del mundo*, udaletxeko areto nagusian.

DANTZA IKUSKIZUNA

20:00. *Basotik itsasora 2.0*, Dantzaz-en ikuskizuna, Leidorren.

KONTZERTUA

22:00. Sharon Stoner eta Potemkin taldeen kontzertua. Sarrera: 8 euro. Bonberenean.

HONDAKINAK PREBENITZEKO

EUROPAKO ASTEA

09:00-20:00. Liburu eta diskoaren azoka solidarioa. Kaleko Elkartasun eta Kultur Elkartearen eskutik. Trianguloa plazan.

TOLOSALDEA

ELKARRETARATZEA

Herriz herri eta plazaz plaza euskal presoaren eskubideen aldeko elkarretaratzeak egingo dira.

LARUNBATA

AZAROAK 26

ADUNA

IKASTAROAK

Zirkua familian, adin mugarik gabeko saioa eta trapezio ikastaroa, maila guztinetzako. Zirkuolan.

BALIARRAIN

UDAZKEN KULTURALA

Bazkaria elkartearen eta Andoni Ollokiegiren kantaldea.

BERASTEGI

BERTSO BAZKARIA

Bertso bazkaria Urepelen. Haritz Mujika eta Jexux Mari Irazu ariko dira kantuan.

BERROBI

SANANDRESAK

San Andres afaria, Ostatuan, kara-

okea eta dantza, Andoni DJrekin.

LARRAUL

KULTUR ASTEA

Gazte Eguna

18:00. Frontenis txapelketa.

20:30. Gazte afaria elkartearen.

LIZARTZA

KULT19:00. URALDIA

19:00. Ruper Ordorikaren kontzertua. Elizan.

TOLOSA

TXAPELKETA

Larunbat eta igandean. Euskal Herriko Kopa eta Espainiako Bigarren Mailako Kopa izango dira joan. Saioak 10:00etan eta 17:00etan hasiko dira. Usabal kiroldegian.

AZOKA

09:00-13:00. Zumardia elkartearen neguko mendi eta eski azoka. Kultur etxean.

IZEN-EMATEA

11:00-13:00 eta 16:00-19:00.

Olentzaroren Basoan hitzordua hartzeko aukera egongo da aurreraz aurre, Antxon Bandres bi daiariaren txokoa.

HONDAKINAK PREBENITZEKO

EUROPAKO ASTEA

11:00-13:00. Konpost-gunea eta tailerrak, Trianguloan.

KONTZENTRAZIOA

11:30. ELA eta LABek deituta, Asuncion klinikako langileen kontzentrazioa, Trianguloa plazan. Ospitale berriaren etorrerarekin, langileen desinformazioa salatzeko. Aldarrikapenen artean: %100 publikoa, Asuncion klinikako langileekin eta zerbitzu guztiak eskainiz.

TITIRIJAI

18:00. *Bianco*. Labú teatro (Herrialde katalanak). Familia guztiari zuzendurik. Hitzik gabea. 50 minutu. Topic-en.

20:30. *Jauja*. Titiriteros de Binefar

(Aragoi). Familia guztiari zuzendurik. Gaztelaniaz. 60 minutu, Zerkausan.

KONTZERTUAK

22:00. Nuevo Catecismo Catolico eta Discipulos de Dionisos taldeen kontzertua. Bonberenean.

20:00. IV. Kantik zikloko kontzertua. Academia Coral de Santander abesbatza, San Frantzisko elizan.

URKIZU

IPUIN KANTATUAK

18:30. Kontu kontu kantaldia ipuin kantatuak. Itziar eta Joxan. Urkizuko elkartearen.

IGANDEA

AZAROAK 27

ALTZO

JUBILATUEN EGUNA

12:30. Meza Nagusia. Herriko dantzariak eta trikitilariak plazan.

14:00. Bazkaria, Altzoko ostatuan.

AMASA-VILLABONA

MENDI ASTEA

08:30. Aizkardi mendi elkartearen 38. Mendi Astea. Mendi ibilaldia. Olaederra kiroldegitik.

DANTZA IKUSKIZUNA

19:30. Ur bizitan Haatik konpainiaren dantza ikuskizuna. Sarrera 8 euro. Gurea antzokian.

AMEZKETA

UDAZKEN KULTURALA

10:00. Amezketako Azoka, Larrunarri frontoian.

ANOETA

BAKARRIZKETA

18:30. Magma mía bakarriketa, Bea Egizabalekin. Mikelasagasti auditorioan.

BERROBI

SANANDRESAK

11:30. Dantzatu eta abestu eman-

naldia, plazan. Lorea Intxausti, Asier Burgete eta Joanes Etxebeste aktoreekin.

12:30. Txakolin eta gazta dastaketa, Joxe Mendizabalek alaiturik.

18:00. Talo jatea, ostatuan.

IRURA

BIGARREN ESKUKO AZOKA

11:00. Bigarren eskuko azoka.

12:00. Bigarren bizitza bat sormen tailerra, San Migel plazan.

LARRAUL

KULTUR ASTEA

18:00. Gaztaina eta talo jatea, elkartearen.

LIZARTZA

KULTURALDIA

16:00. Hondar tailerra, eskulanak. Andoni Baztarregi. Frontoian.

ORENDAIN

EUSKARALDIA

14:00. Kantu bazkaria, babarrun jatea Andoni Ollokiegik alaitua, Eltxoak elkartearen.

TOLOSA

TXAPELKETA

09:30. VII. GP irristaka indoor saria. Federatuak eta ez federatuak, infantil mailatik aurrera, Usabal kiroldegian.

IZEN-EMATEA

11:00-13:00. Olentzaroren Basoan hitzordua hartzeko aukera egongo da aurrez aurre, Antxon Bandres bidaiariaren txokoan.

TITIRIJAI

11:00, 12:00, 13:00, 17:00 eta

18:00. Larun kale ikuskizuna. Jokai (Nafarroa). Familiari zuzenduta. Hitzik gabea. 60 minutu. Zerkausan.

18:30. Gizon zoriontsuaren alkan-dora. Teatro paraíso (Araba). Familia guztiari zuzendurik. Euskaraz. 55 minutu. Topic antzokian.

KONTZERTUA

12:00. Xexili eguneko kontzertua. Giro Arte dultzaina taldea, Tolosako udal txistulari banda, Isidro Larrañaga orkestra eta Tolosako Udal Musika Banda. Leidorren.

PILOTA

17:00. Binakako txapelketako partida: Urrutikoetxea-Albisu eta Peña II.a-Mariezkurrena II.a. Beotibarren.

ASTELEHENA

AZAROAK 28

TOLOSA

ELKARRETARATZEA

12:00. Tolosaldeko pentsionisten elkarretaratzea, udaletxe aurrean, pentsio duinen alde egiteko.

A25

18:30. Emakume helduen kontrako indarkeria hitzaldia, kultur etxean, euskaraz, Lurdes Rodriguez Landaren (IPES) eskutik. Kultur etxean.

ZINEMA



AS BESTAS

Larunbata (19:30 eta 22:00) eta astalehena (19:30).
Amasa-Villabona, Gurea.

Igandea (20:30) eta
astalehena (19:00).
Tolosa, Leidor.

«NOBELAK ESKATZEN DU IRAKURKETA AKTIBOA EGITEA»

ANDONI AGIRREZABALA IZAGIRRE
IDAZLEA

Erein argitaletxearen Uzta Gorria bilduman kaleratu du 'Etxe Berdea' nobela beltza; alegiarraren lehenengo literatur lana da

Jon Miranda Alegia

Esperientzia polita izan da liburu bat idaztea Andoni Agirrezabala Izagirrarentzat (Alegia, 1998). Misteriozko istorioak irakurtzea asko gustatzen zaio eta idatzi ahala ondo pasatzen duela ikusita, idazketa prozesuarekin gozatu du. Pertsonaia bakoitzaren azalean sartzeko ariketa entretenigarria egin zaio.

Nobela beltza da 'Etxe Berdea'?

Bai. Gertakizun tragiko bat dago oinarrian, herri txiki batean gertatzen dena. Horren bueltan herriko aguzilak egiten duen ikerketa bat jaso dut. Nobela beltza da, bai.

Testigantza bilduma bat da liburuan jaso duzuna. Hasieratik zeneukan argi egitura hori erabili nahi zenuela?

Bai, egia esan, natural atera zitzaidan. Egitura honi aurkitutako metrajea deitzen zaio, *found footage*. Irakurleak hartuko du lekuko bakoitzaren testigantza, karpeta batean bilduta aurkituko balu bezala. Banuen gogoia pertsonaia ezberdinen azaletik idazteko edo hitz egiteko eta ikusten nuen teknika hori ondo zetorrela. Zailtasun handiena idazketa proze-

suan hor egon da, ez da berdina 12 urteko neskato baten begiradatik edota 50 urte inguruko emakume baten azaletik hitz egitea. Zailtasunak baditu teknikak baina bere abantailak ere bai, istorioaren hariari jarraitzeko eta irakurlea entretenitzeko aukera asko ematen ditu.

Eleberrian ageri den herriko aguzila da protagonista?

Bai, pertsonaia ugari ageri dira, baina agian protagonista nagusia aguzila da. Berak egin du ikerketa eta bera joan zaie galdezka herritarrei. Gero ordena jakin batean eman ditu lekukotza horiek. Egin du editore batek egiten duen lana. Lekukoei esan die kontatzeko daukaten hori eta haien hitzak errespetatuz eman ditu nobelan.

Lekuko horien ahotsa ezberdintzen saiatu zara. Zerk eman dizu lan gehien?

Pertsonaia batzuk sortzea naturalago egin zait edo errazago atera zait haien ahotsa. Adibidez, Sara izeneko 12 urteko neskatoarena da gehien kostatu zaidana. Etxean denbora asko pasatzen duen neska bat



da, irudimen handikoa eta bere pertsonalitatea ondo finkatu nahi nuen. Lana eman dit.

Hitanoa ere erabili duzu testigantzaren batean.

Bai. Badaukagu Lukas izeneko pertsonaia bat. Hilerrian lan egiten duen pertsona bakartia da. Hitanoa erabiliz zuzentzen zaio aguazilari, horrela ematen du bere testigantza. Pentsatu nuen pertsonaia ezberdinek egon behar zutela nobelan eta Lukas bezalako pertsonaia batek hitz egiteko modu hori izango zuela.

Nola egin duzu gazteen ahots eta hitz egiteko modua sinesgarri egiteko?

Garbi nuen garrantzitsua zela sinesgarritasun puntu bat ematea liburuari. Hitz egiteko moduak badu garrantzia. Gazte kuadrilla bat agertzen da nobelan, eta beren hitz egiteko era islatzen saiatu naiz, erdarakada eta guzti. Hitz egiteko garaian botatzen ditugu horrelakoak eta errealtate hori eman nahi izan dut momentu jakin batzuetan.

Lekuko en artean baduzu baten bat gogokoen?

Estimu handia diot adibidez nobelan ageri den aitonari. Ez da asko agertzen baina arrastoa uzten du agertzen denean. Misteriozko atmosfera batek inguratzen du. Azken batean, herri batean biltzen diren ahotsen gehiengoa errepresentatu nahi izan dut. Agertzen dira helduak, zaharragoak direnak, gazteak eta umeak. Batetik bestera mugitzea zen asmoa eta lanketa bat ekarri dit horrek.

‘Etxe Berdea’ eleberrian agertokiak garrantzia handia du. Zein lekutan inspiratu zara?

Alegian neurri handi batean. Oraindik nobelak zertan bukatuko zuen jakin gabe, hasieran idazten hasi nintzen garaian nire intentzioa zen nire haurtzaroko paisaia batzuei buruz hitz egitea. Horien artean Alegia-ko tokiak daude, baina baita beste toki batzuetakoak ere, edo asmatutakoak. Agertoki hori muntatzea zen nire asmoa eta txikitako paisaia horiek erakustea. Oroitzapen oso politak dauzkat, abentura txikiak bizi genitueneko garaiak zirelako.

2005eko urriaren 29ko gertakariak dira argitu beharrekoak. Zergatik jo duzu hain atzera?

2005ean nik zazpi urte nituen. Iruditzen zait orduko mundua eta gaur egungoa ez direla berdinak. Dezen- te aldatu da. Garai hartan ez genuen mugikorrik eta umeen jolasteko modua ere bestelakoa zen. Oroitzapen horiek oso gordeta dauzkat eta gaur egun dagoeneko desagertuta dagoen mundu baten isla eman nahi nuen.

Misterio giro hori badu eleberriak eta gero baditu elementu fantastikoak ere.

Herri txikietan egoten dira kondaira edo mito batzuk. Interesgarria iruditu zitzaidan istorio honi elementu hori gehitzea. Irakurleak bere lana egingo du eta ba-

tzuk elementu fantastiko horri garrantzi handiagoa emango diote beste batzuk baino. Ez da zuria edo beltza. Irakurlearen aldaratearen arabera, irakurketa bat edo bestea egin daiteke.

Trama ez dago erabat itxia. Nahita egin nahi izan duzu hori?

Bai. Aguazilak bere ikerketa egiten du, baina ez da polizia baten tokian jartzen. Irakurleak pentsatu egin beharko du; hausnarketa egin. Nobelak eskatzen du irakurketa aktiboa egitea, irakurlea istorioaren parte sentituko da eta irudimenari eragin beharko dio.

Bada lekukotzarik eman ez baina nobela guztian presente dagoen pertsonaia bat, Xabier. Irudime-nezko eta fantasiatzko kontakizunaren bitartez, ne-rabe batek bizi izan ditzakeen gorabeherak islatu nahi izan dituzu?

Bai, neurri batean bai. Pertsonaia garrantzitsueneta-ko bat da Xabier. Bere bizitzari aldaketa bat eman nahi dio gustura ez dagoelako bere bizimoduarekin. Erabateko buelta emango dio bizitzari eta nora iritsi-ko den deskubrituko du irakurleak. Nerabezaroan oso ohikoak izaten dira aldaketa horiek.

Gazteentzako eleberri bat dela esango zenuke? Haiengan pentsatuta idatzi al duzu?

Hasiera batean neure burua izan dut gogoan. Nire-tzako idatzi dudak istorio bat da. Irakurleengan, hala ere, nahigabe ere pentsatzen duzu. Uste dut gazte jendeak irakurri dezakeela, haienezako interesgarria izan daitekeela. Helduentzako ere entretenigarria izan daiteke.

Nola sortu zaizu aukera eleberri hau publikatzeko?

Berezi xamarra izan zen. Uxue Razkin editoreak txio bat idatzi zuen Twitterren. Euskaraz idatzitako nobela beltzen bila zebilela esaten zuen txioan eta posta elektronikoko bat uzten zuen. Nire gertukoek irakurrita zuten nire nobela eta haiek animatu ninduten Uxueri idatzera. Bidali nion lehen zirriborroa eta handik astebetera erantzun zidan gustatu zitzaioela eta zerbait egin genezakeela esanez. Urte hasieran izan zen hori eta ordutik hona lanean jardun dugu liburua prestatzen.



Aberasgarria izan al da prozesua?

Bai. Ikasteko aukera bat izan da niretzako eta Uxuek egin dizkidan iradokizunak tentuz entzun ditut. Oso gustura nago prozesuarekin.

Biologoa zara ikasketaz, irakasle izateko prestatzen ari zara. Nondik nora idaztearena?

Ez dut idazteko ohitura handirik izan unibertsitatara iritsi arte. Egia da etxean beti liburuz inguratuta egon naizela, gurasoak irakurzaleak direlako oso. Bilbora joan nintzenean, irakurzaleak ziren lagun batzuk egin nituen eta barruan hor nonbait eramango nuen har



«Ikasteko aukera bat izan da niretzako eta editoreren iradokizunak tentu handiz entzun ditut»

hori piztu zitzaidan. Irakurtzearekin batera, idazteko beharra ere bateratsu etorri zitzaidan. Gustatu eta segi egin nion.

Zer literatura klase irakurtzen duzu?

Denetarik, esango nizuke. Irakurzaletasuna piztu zidan Edgar Allan Poek, misteriozko gauzak gustatzen zaidalako, bere estiloak segituan harrapatu ninduen. Bram Stokerren istorioak ere gogoko ditut, Shirley Jackson asko gustatzen zait... Bernardo Atxagaren zale amorratua naiz. Euskaraz eta gaztelaniaz irakurtzen dut nagusi.

Sortzerako orduan zer-nolako testuingurua behar duzu?

Lasai egon behar izaten dut. Soinu asko ez dagoen toki batean, eta iluntzeetan, arratsaldean edo afalosteetan jartzen naiz idazten gehienetan. Iluna dagoen garaian gehiago sartzen naiz istorioan.

Dena jarraian idatzi al duzu 'Etxe Berdea'?

Hasieran, pertsonaia bat idazten nuen eta beste batera pasatzen nintzen. Aguazilak darama istorio guztiaren haria eta bere parte nahikoa segidan idatzi nuen. Ahotsak desberdintzeko garaian, pertsonaiak idatzi nituen testigantzak. Gero, saiatu nintzen, istorioari mesede egingo zion ordena bat ematen eleberriri.

Lanketa berezirik egin al duzu hizkuntzarekin?

Bai. Idazten hasi nintzenean hitz gutxiago nekizkien. Gauza askotan erren banenbilen eta idazte ahala ikasten joan naiz. Testu batek atzean bere lana dauka. Hasierako bertsio hartatik bukaerakora alde dezente dago, behin baino gehiagotan orraztu behar izan dut testua. Esperientzia handirik ez neukan langintza honetan, baina oso kontentu nago emaitzarekin. Gustura nago ikasketa prozesu bat izan delako.

'Etxe Berdea' eleberririk bigarren parterik izango al du?

Ez naiz horretan pentsatzen jarri. Baina idazten ari nintzela ibili nuen buruan, istorio honi segida eman diezaiokeela alde batetik edo bestetik. Ez dakit aterako den edo ez, baina segida bat ematea posible da, bai.

Zein ibilbide egin nahiko zenuke literaturaren munduan?

Zerbait idatzita daukat, baina etxeko tiraderan sartuta. Nire egunerokotasunaren parte da idaztea. Maiz idazten dut. Orain arte niretzako egin dut, idazteko behar hori sentitzen dudalako. Ez daukat gauza zehatzik pentsatuta. Nik hari bati tira eta tira, leku batera iristen naiz baina gehiegi aurreikusi gabe. Zerbait ateratzen bada eta publikatzeko modukoa bada animatuko naiz. 10-14 urte inguruko gaztetxoentzako zerbait idaztea gustatuko litzaidake etorkizunean.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA.

Giro kaxkarra. Goizean fronte batek eragingo digu, zeruan hodeiak nagusituko dira eta giro bustia izango dugu. Zaparrada tartekatuak botako ditu, non une batzuetan mardulak izango diren, ekaitzak jotzea baztertu gabe. Arratsaldeak aurrera egin ahala atertzeko joera hartuko du, azken orduetan ateri geratuko delarik. Mendebal, ipar-mendebaldeko haize bizia ibiliko da eta tenperatura zertxobait jaitsiko da, 12-14 graduan joaz goia.

LARUNBATA

Giro atsegina. Goizean erdi eta goi-mailako hodeiak ugariak izango dira, baina ateri egongo da eta giro lasaia izango dugu. Eguerditik aurrera gainera ostarate gehiago ikusiko dugu eta eguraldi argiagoa izango da. Hego-haizea nagusituko da, tarteka bolada bi-ziakin eta tenperaturak gora egingo du, 16-17 graduan joaz goia egunaren erdiko orduetan.

IGANDEA

Giro lasaia. Goizean erdi eta goi-mailako hodei ugari izanagatik, tarteka ostarate batzuk izango dira eta eguraldi atsegina izango dugu. Arratsaldeak aurrera egin ahala hodeiak ugaritu egingo dira, azken orduetan zerua erabat estalirik geratuko delarik. Gau erditik gertu fronte bat iritsiko da eta euritara joko du. Hego, hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, azken orduetan mendebaldera egingo duelarik. Tenperatura igo eta 17-18 graduan joko du goia.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

AZAROAK 25, OSTIRALA

IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24.
943 67 32 74.

AZAROAK 26, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Eurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.

AZAROAK 27, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Oskar Etxebeste. Gernikako
Arbolaren lorategiak, 3. 943 65 10 40.

AZAROAK 28, ASTELEHENA

TOLOSA


Egunekoa. Eurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:
TOLOSA.

LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.



saridunak

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

UR BIZITAN dantza ikuskizuna

• Maixa Zubeldia (Irura)

Azaroak 27, igandea · 19:30 · Amasa-Villabonako Gurean



Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

Guuk Gipuzkoa Basket **vs** Iraurgi ISB

• Zigor Leunda (Amasa-Villabona)

Azaroak 27, igandea · 18:00 · Angulas Aguinaga Arenan

Atarikideentzat **bi sarrera bikoitz** ditugu

• Mikel Etxaburua (Tolosa)

• Leire Olasagasti (Amasa-Villabona)

Azaroak 26, larunbata · 17:00 · Baionako Lauga kiroldegian



Saria eskuratzeko Ataria jarriko da zuekin harremanetan



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 Jantzi EUSKARALDIA 2022

Kamiseta, poltsak eta banderatzxoak

• Jose Mari Aranzabe Urruzola (Alkiza)

• Luis Saizar Azpiroz (Berastegi)

Eman izena:

www.izenematea.euskaraldia.eus

Ataria jarriko da harremanetan



2 LA PERLA

Bi lagunentzako *Forman*
jartzeko *Talaso* Zirkuitua

• Juan Ignazio Elozegi Aldasoro (Berastegi)

Kontxako pasealekua z/g
DONOSTIA

943 45 88 56

www.la-perla.net

Ataria jarriko da harremanetan



3 ALAKRANA DE ECHEBASTAR

Produktu sorta

• Olatz Bordagarai Irastorza (Alegia)

Erroxape kaia
48370 BERMEO

946 18 65 00

www.alakrana.com

Ataria jarriko da harremanetan



Atarikide txartela erakutsi behar da saria erabiltzeko

GREEN FRIDAY

%100eko* BEHERAPENA

%50 Abenduan | %50 Urtarrilean

*Azaroaren 24tik 28ra arteko promozioa
Baldintzak kirolgunean kontsultatu

Bisita itzazu Tolosako Udal Kirol Instalazioak

Usabal 25A, 20400 Tolosa. Gipuzkoa.